

OBRA TXIKIAK EGITEKO BAIMENA: AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Beti aurkeztu beharrekoak:

- Obra txikiak egiteko eskaera behar bezala beteta.
- Eskatzailearen eta dagokionean ordezkariaren NAN, IFKaren... edo horren balio bereko beste dokumenturen baten fotokopia. NAN, IFK... dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.
- Legezko ordezkapenaren kasuan, eskaera izenpetzen duenaren ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitezkeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).
- Eraikina edo etxea antolamenduz edo ordenazioz kanpo badago, antolamenduz kanpo dauden eraikinetan obrak egiteagatik kalte-ordainari uko egiteko agiria behar bezala beteta.
- Aldamioak, garabiak, kaxetak eta antzekoak jarri behar badira, kontsultatu bide publikoan aldamioak, garabiak, kaxetak eta eraikuntzaren beste elementu lagungarriak jartzeko baimena izeneko tramitea.
- Obra-edukiontziekin bide publikoa okupatu behar bada, baimena Udaltzaingoa eskatu behar da okupazioa egiteko modua finkatzeko eta, hala badagokio, aparkaleku aldea hartzeko edo okupatzeko.

Egitekoak diren obren arabera aurkeztu beharrekoak:

Etxebizitza barruko obrak: Gela bat egiteko lanak egitea / Bainugelak, komunak, sukaldeak... jartzea edo lekuz aldatzea; beste bainugela bat jartzea... / Barruko tabikeak beste era batera antolatzeko lanak egitea; gelen tamaina txikitzea; gela itsuak... / Sabaietako, zorueta eta mehelinetako tarte hutsei eragiten dieten lanak egitea / Berokuntza-sistema ipintzea / Etxebizitzan gasa instalatzeko lanak egitea.

- Lanetan parte hartuko duten gremio guztien aurrekontu zehatza, eskulana eta materialak zehaztuta.
- Oraingo egoera eta lanak egin ostekoa azaltzen dituzten memoria eta planoak.
- Berokuntza sistema jarritz gero, hodian eta galdara jarritako tokiaren planoak.

Lokalen barruko obrak: Bainugelak, bulegoak eta/edo biltegiak egiteko lanak egitea / Instalazioak aldatu barik bainugelako edo sukaldeko elementuak aldatzea (barruko leihoak, altzariak, bainuontzia, komuna, bideta, konketa...) / Hutsarteak edo baoa aldatzeke, atek aldatzea / Zoruen, sabaien edo paramentuen bukalanak konpontzea edo berritzea; zorua igo barik zoladura aldatzea, sabai aizunei lotutako lanak egitea, hormak eta sabaiak estaltzea (azulejuz estaltzea, igeltsuztatzea, zolatzea) / Instalazioak konpontzeko edo berritzeko lanak egitea (iturgintza-lanak, argindar-lanak...) / Merkataritza-lokalen barruan eraberritze- eta mantentze-obrak egitea.

- Lokalaren oraingo egoera eta egitekoak diren obrak azaltzen dituen proiektua. Obraren tamaina zein den, proiektua bisatu beharko da.

Lokalen barruko obrak: Merkataritza-lokaletan eta biltegietan bainugelak egitea / Lokalak goitik behera berritzeko obrak egitea.

- Proiektuaren bi kopia. Obraren tamaina zein den, proiektua bisatu beharko da.
- Lanak bere gain hartzeko orriaz justifikatutako zuzendaritza teknikaria, dagokion lanbide-elkargoak bisatuta.

Eraikin barruko obrak: igogailua aldatzea / beste igogailu bat ipintzea.

- Proiektu teknikoaren bi kopia, bisatuak eta arkitektoak izenpetuak, eta obrako zuzendaritzaren kontratu bisatua.
- Lanetan parte hartuko duten gremio guztien aurrekontu zehatza, eskulana eta materialak zehaztuta.

Eraikin barruko obrak: pegoran arrapala jartzea.

- Aurrekontu zehatzak.
- Oraingo egoeraren eta egitekoak diren berritze-lanen krokisa.

Eraikin kanpoko obrak: teilatuak, fatxaden akaberak, teilatu lauak, balkoiak, terrazak, barandak, erlaitzak... konpontzeko lanak.

- Aurrekontu zehatza, bukanaren eta leihoetarako nahi diren kolore eta diseinuaren berri ematen duena.
- Fatxadaren argazkia, koloretan. Aldaketak non egingo diren adierazi behar da argazki horretan. Eraikinaren kanpotik atera behar da erretratua, pertsianak jasota daudela eta goiko eta beheko solairuak ere ikusten direla.
- Balkoi beiradunen motakoak badira aldatzekoak, eta diseinu bera baldin badute eraikin guztikoek, eraikineko jabe guztiek izenpetutako akordio bat aurkeztu beharko da. Akordio horretan, izen-abizenez, NAN zenbakiaz eta solairuaz gainera, adierazi beharko dute diseinu berriarekin edo aldaketarekin ados daudela, guztiek aldageta berdinak egiteko obrak egingo dituztela 5 edo 10 urteko epearen barruan eta kanpoko margoa edo apainketa bat bera izango direla haietan guztietan.

Eraikin kanpoko obrak: leihoak, pertsianak, balkoietako atek... berritzea.

- Aurrekontu zehatza, bukanaren eta leihoetarako nahi diren kolore eta diseinuaren berri ematen duena.
- Fatxadaren argazkia, koloretan. Aldaketak non egingo diren adierazi behar da argazki horretan. Eraikinaren kanpotik atera behar da erretratua, pertsianak jasota daudela eta goiko eta beheko solairuak ere ikusten direla.
- Leihoen eta pertsianen kolorea eta diseinua aldatu nahi izanez gero, eraikineko edo fatxadako leiho eta pertsiana GUZTIEN diseinua aldatzeko etxejabeen elkartearen akordioa aurkeztu beharko da.

Eraikin kanpoko obrak: balio historikoaren sailkapenik ez duten eraikinetan leihoak egitea edo aldatzea, baldin eta egituraren elementuei eragiten ez bazaie.

- Proiektuaren bi kopia. Obraren tamaina zein den, proiektua bisatu beharko da.
- Lanak bere gain hartzeko orriaz justifikatutako zuzendaritza teknikaria, dagokion lanbide-elkargoak bisatuta.
- Leihoen eta pertsianen kolorea eta diseinua aldatu nahi izanez gero, eraikineko edo fatxadako leiho eta pertsiana GUZTIEN diseinua aldatzeko etxejabeen elkartearen akordioa aurkeztu beharko da.

Eraikin kanpoko obrak: leihoetan burdin sarea jartzea.

- Aurrekontu zehatza.
- Fatxadaren argazkia.
- Burdin sarearen krokisa.

Eraikin kanpoko obrak: instalazioetako hodiak, hustubideak, ur zikinen erretenak... jartzea, konpontzea edo aldatzea.

- Aurrekontu zehatza.
- Fatxadaren argazkia.
- Baimendutako instalatzaile batek gasaren instalazioa jarri izanari buruzko dokumentazio teknikoa.
- Etxe hornitzailearen alde zuzeneko baimena.

Eraikin kanpoko obrak: fatxada margotzea eta konpontzea.

- Aurrekontu zehatza.
- Fatxadaren argazki estandarra (gutxieneko neurriak: 9x13).

Eraikin kanpoko obrak: antena jartzea.

- Aurrekontua.
- Teilatuaren krokisa, antena non jarriko den adierazita.
- Fatxadaren argazkia, baldin eta kableak handik igarotzen badira.
- Irrati-amateurren antenetarako, teilatuak pisuari eusten diola ziurtatzen duen agiria, teknikari batek bisatua.

Eraikin kanpoko obrak: fatxadan barrena tximinia jartzea.

- Proposatutako instalazioaren aurrekontu zehatza eta krokisa.
- Fatxadaren edo fatxaden argazkiak, instalazioa nondik igarotzen den adierazita.

Kanpoaldeko obra txikiak: kanalizazio-lanak eta hirigintzako obra txikiak egitea.

- Instalazioen kokapen- eta sekzio-planoak, behar adinako eskalan eginak; memoria deskribatzailea, eta aurrekontua.

Kanpoaldeko obra txikiak: katak eta zundaketak.

- Zundaketa edo kata segurua dela bermatzen duen enpresa espezializatu baten dokumentazio teknikoa.

Kanpoaldeko obra txikiak: putzuak eta hobi septikoak egitea.

- Proiektuaren bi kopia. Obraren tamaina zein den, proiektua bisatu beharko da.
- Lanak bere gain hartzeko orriaz justifikatutako zuzendaritza teknikaria, dagokion lanbide-elkargoak bisatuta.

Kanpoaldeko obra txikiak: pasabideetan espaloiko zintarria behertzeko egin beharreko lanak egitea.

- Aurrekontua eta behertzeko lanen krokisa.

Kanpoaldeko obra txikiak: mugarriak ipintzea.

- Aurrekontua eta kokapen-planoa.